

Hurbileko informazioaren definizioa eta funtzioak. Euskarazko herri aldizkarien azterketa

(Definition and function of proximity information.
Analysis of local magazines in Basque)

Camacho Markina, Idoia

Eusko Ikaskuntza. M^a Díaz de Haro, 11 – 1. 48013 Bilbo

BIBLID [1137-4462 (2004), 10; 199-216]

Jaso: 03.02.05

Onartu: 03.10.17

Estatuan, hurreko prentsa 70eko hamarkadan hasi zen garatzen, herriko informazioa protagonismoa lortzen hasi zenean. Hurrengo hamarkadan prentsa lokalaren fenomenoak garrantzi handiagoa hartu zuen eta Euskal Herria loraldi horren lekuko izan zen. Hurbileko informazioa ez da agertzen bakarrik tokiko prentsan, egunkari handiak ere konturatu direlako irakurlearengan hurbiltzearen beharraz. Horregatik, hurbileko esparrua definitzeko, eremu fisikoaz gain, zonalde zehatz bateko jendeari interesatzen zaion guztia kontuan hartu behar dugu.

Giltza-Hitzak: Hurreko prentsa. Herri aldizkariak. Funtzioak. Edukia. Eskualdeko hedabideak.

Fue en la década de los 70 cuando la prensa de proximidad, la información de los pueblos empezó a tomar protagonismo en el estado. En la década siguiente el fenómeno de la prensa local alcanzó mayor relevancia y Euskal Herria fue testigo de aquel florecimiento. La información de proximidad no aparece únicamente en la prensa local, sino que los grandes diarios también se han percatado de la necesidad de la cercanía al lector. Por esta razón, a la hora de definir el espacio de proximidad, además del área física, hay que tener en cuenta todo lo que interesa a la gente de una zona concreta.

Palabras Clave: Prensa de proximidad. Publicaciones periódicas de los pueblos. Funciones. Contenido. Medios de comunicación comarcales.

C'est au cours des années 70 que la presse de proximité et l'information des villages commença à jouer un rôle au sein l'état. Au cours des dix années qui suivirent, le phénomène de la presse locale prit une plus grande importance et Euskal Herria fut le témoin de cet épanouissement. L'information de proximité ne paraît pas seulement dans la presse locale. Les grands quotidiens se sont également rendu compte de la nécessité de la proximité du lecteur. Pour cette raison, au moment de définir l'espace de proximité il faut tenir compte, en plus de l'espace physique, de tout ce qui intéresse les gens dans une zone concrète.

Mots Clés: Presse de proximité. Publications périodiques des villages. Fonctions. Contenu. Moyens de communication régionaux.

1. HURREKO PRENTSA

Azken urteotan eremu urriko hedabideak dezente ugartu dira mundu osoan zehar. Hazkunde horren lekuko ditugu ikus-entzunezko zein prentsaren alorrean sortu diren hainbat eta hainbat tokian tokiko komunikabide, informazio lokalari lehen ez zuen esparru berezia eskaintzeko asmoz. **Herriko** informazioaren loraldi hori bete-betean antzeman dugu Euskal Herrian; baina beste horrenbeste gertatu da beste herri batzuetan, Katalunian, Europan eta Estatu Batuetan adibidez.

Espainiako estatuko hurreko prentsaren garapenean ikaragarri garrantzitsua izan zen herri administrazioa, 1979an, udal hauteskunderen bitartez, udalek Francoren diktaduran galdutako onespina berreskuratu zutenean. Urte hartan, udal mailako informazio-politikak ezartzen hasi ziren, eta hurreko informazio-sistemak sortu ziren. Horren ondorioz, herriko informazioa izugarri suspertu zen, ordura arte ez zeukan baina merezi zuen protagonismoa lortuz. Garapen horren arrazoiak honako hauek izan ziren:

- Herritarrei interesatzen zaizkien albisteak ezagutzeko beharra, hedabide orokorrek, pribatuek edota instituzionalek, ematen ez dizkietenak.
- Egunkari handiek komunitate mugatu bati buruzko albisteak jasotzeko ezintasuna.

Baina udal hauteskunderen arrazoiarekin batera, beste lau faktore hartu behar dira kontuan informazio lokalak 70eko hamarkadan izan zuen hazkunde hobeto ulertzeko:

1. Herriko informazioak izan zuen profesionalizazio eta modernizazio-prozesua: egunkari guztiek informazio lokalaren aldeko apustua egin zuten, egitura eta eduki informatibo zaharkituak indarberritu eta profesionalizatzen zihoazen bitartean.

2. Herriko informazioak duen gertutasuna eta komunitatea kohesionatze-ko gaitasuna: izan ere, tokian tokiko informazioak, hurbiltasunaren formula dela medio, komunitatearen kohesioa suspertzen du.

3. Publizitatearen munduak egindako apustua: publizitate lokalaren aukera ugariak aurreikusirik, komunikabideak tokian tokiko merkatuan sartzen hasi ziren, kontsumitzailearengana hobeto hurbildu ahal izateko.

4. Birmoldaketa teknologikoak ekarri zuen kostuen merkatzea: kazetagaritzako enpresek teknologian egin zituzten inbertsioei esker, gastuak baxuagoak izan ziren eta hori erabakigarria izan zen urte batzuk geroago edizio lokalak sortzeko momentuan.

Dena den, Espainiako estatuan prentsa lokalaren fenomenoaren garrantzia 80ko hamarkadan azpimarratzen hasi zen. Garai hartan komunikazio lokala izendatzeko mesokomunikazioa terminoa erabiltzen zen, makrokomunikazioa eta megakomunikazioa kontzeptuetatik bereizteko. Mesokomunika-

zioa kontzeptua pertsonen arteko komunikazioaren esparruaren eta masa-komunikazioaren esparruaren artean kokatzen da.

Ikusten denez, mugaketa hau soziologiaren ikuspuntutik eginda dago eta zaila da termino bakoitzak adierazten duena neurtzea. Hala ere, aditu batzuek kontzeptu hauek zenbakitan jarri dituzte eta mesokomunikazioaren edo hurbileko komunikazioaren esparrua 100 eta 10.000 hartzailearen artean kokatzen dute. Hau da, gehienez 10.000 hartzaile dituzten gizarteak nahiko integratuta egon ohi dira jendeak elkar ezagutzen duelako; beraz, bertan zabaltzen diren mezuak hurbileko informazioa dela esan dezakegu.

Gaur egun gertatzen denari begirada bat emanez, lehenengo eta behin, prentsa lokalaren definizioa egin behar delakoan nago. Izan ere, hurreko prentsaren barnean batere homogeneoa ez den multzo bat aurkitzen da eta, askotan, herri prentsari buruz hitz egiten denean oso ezaugarri desberdinak dituzten argitalpenak nahastu egiten dira.

Horren lekuko dugu **José Juan Picos Freirek** egiten duen sailkapena. Berak Espainiako estatuko informazio lokala aztertu du eta hurreko prentsa kontzeptuaren barruan lau prentsa mota desberdin sartzen ditu. Bere hitzetan, 'Hurreko prentsa (erregionala, probintziakoa, eskualdekoa eta tokian tokikoa) espezializazioaren beharra betetzen duen tresna da: maila nazional-eko hedabideetan kezka lokalaren isla ikusten ez duten herritarren beharra, hedabide horiek gertaeren garrantzia hedapen orokorraren arabera neurtzen baitute'.

Lau prentsa mota hauek definitzeko, **Juan Maciá Mercadéren** tesira joko dut, *La comunicación regional y local* izenekoa. Berak aipatzen dituen prentsa erak desberdintzeko, irizpide hauek erabiltzen ditu: zabalkunde eremua, egoitza dagoen tokia, argitalpenaren xedea, edukia, irakurleriaren oharpena eta erakundeekiko harremanak. Honako hau da aipatu tesian egiten den sailkapena:

– **Prentsa erregionala** da erregio osoan, edo zati handi batean, hedatzen dena, egoitza erregio horretako hiri batean izanik. Bere asmoak eta edukiak esparru erregionalekoak dira –eta irakurleak hala ulertzen du– eta erregioko erakundeekiko harremana zuzena eta iraunkorra da.

– **Probintziarteko prentsaren** barruan honako agerkari hauek sartzen dira: egoitza probintzia bateko hiri edo hiriburuan izanik, alboko probintzietan ere hedatzen direnak. Probintzia horiek, hala ere, ez dute erregio oso bat osatzen, eta erregio desberdinetakoak izan daitezke. Asmoek, edukiek eta irakurlearen oharpenak probintzia askotako izaera dute, identitate erregional bereko alderdiak badira ere.

– **Probintziako prentsa** da probintzia osoan edo zati handi batean hedatzen dena, bere egoitza, eskuarki, hiriburuan izanik, nahiz eta hiriburua ez den beste hiri garrantzitsu batean ere egon daitekeen. Asmoak eta oinarrizko edukia maila probintzialekoak dira –eta irakurleak hala ulertzen du– eta probintziako erakundeekiko harremana zuzena eta iraunkorra da.

– Azkenik, **eskualde eta tokian tokiko prentsa** da eskualde edota hiri batean hedatzen dena, egoitza eskualdeko udalerrri-buru izanik. Asmoa, edukiak eta irakurlearen oharpena eskualdeko eta tokian tokiko esparruan kokatzen dira eta arlo horretako erakundeekiko harremana zuzena eta iraunkorra da, aurreko modalitateetan baino biziagoa izanik.

Jaume Guillamet-en arabera, agerkariak sailkatzean bi irizpide hartu behar dira kontuan: edukia eta zabalkunde eremua. Edukiari dagokionez, informazio lokaleko agerkarien ezaugarri nagusia honako hau da: euren edukiak zein irakurleak tokian tokiko komunitate bateko partaideak direlako identifikatzen dira, batez ere hiri edo herri batean, baina auzo edo kale batean ere bai. Bestalde, esparru lokaleko prentsaren baitan komunitate txikietan zabaltzen diren agerkariak agertzen dira, baina izaera juridikoa eta ezaugarri fisikoak zehaztu gabe; horregatik kasu askotan udalerrri edo eskualde baino esparru handiagoko agerkariak jasotzen ditu eremu lokaleko prentsak.

Dena dela, gaur egun esan daiteke prentsari buruz egin diren sailkapen klasikoak (nazionala, erregionala eta lokala) nahiko zaharkituak geratu direla, **irakurleengan hurbiltzearen beharra** gero eta garrantzitsuago bihurtu baita kazetagitzaeren arloan. Izan ere, estatu edo nazio mailako egunkari ugari orain dela gutxi arte informazioaren ikuspuntu orokorra bazuten ere, edizio erregionalak argitaratzeari ekin diote eta hartzaileek dituzten ezaugarri, arazo, behar, kulturari... leku berezia eskaintzen diete.

Horrela, masa-komunikabideen izaera aldatzen ari da eta gaur egun lehenetasuna **herritarrek dituzten arazoak eta premiak** da. Hauentzat dena urrunegi dago eta ezezaguna da fidagarria izateko. Horregatik, norbanakoak hurbileko errealitateari begiratzen dio, horregatik lur gaineko erakunde eraginkorrak, herritar horren etxeko arazoak konpontzen laguntzeko bertutea dutenak, indarra hartzen ari dira.

Kontuak kontu, hurreko argitalpenen barruan guri interesatzen zaiguna tokian tokiko prentsari dagokiona da, hau da, udalerrri batean edo multzo batean argitaratu eta hedatu egiten dena, zeinen edukia udal bizitzan oinarritzen den. Bestalde, Maciá Mercadé́k eskualdeko prentsa zein herri prentsa kontzeptuak azaltzeko definizio bakarra erabiltzen duela azpimarratuko dugu, euren ezaugarriak berdintsuak direlakoan. Beraz, nire ustez herri-aldizkari kontzeptupean, herriko aldizkariekin batera, eskualde zabaletan hedatzen direnak ere sartzen dira.

1.1. Tokian tokiko prentsaren ezaugarriak

Gaur egun arte prentsa lokalaren inguruan egin diren azterketetan hainbat definizio desberdin eman dira prentsa mota hau zertan datzan azaltzeko. Espainiako estatuari gagozkiola, arlo honetan hedatzen diren argitalpenak deskribatzeko **Bel Mallen** egilearen *El derecho a la información local* liburuan aipatzen dena hartuko dugu oinarritzat:

‘Tokian tokiko eta eskualdeko prentsak ezaugarri bereziak ditu, prentsa nazionala edo prentsa idatziko ohiko hedabideetatik bereizten dutenak. Ezaugarri horiek honako hamar puntu hauetan oinarrituko lirateke: doakotasuna, aurkezpen marketsa, profesional gutxi euren idazgeletan, eduki anitzak, bertoko hizkuntzen erabilera, merkatuan etenkako agerpen eta desagertpena, politizazio handia, enpresa-egitura ahula eta enpresa-gardentasun urria’.

Dena dela, esan ere esan behar da Bel Mallenek adierazten dituen ezaugarriak nahiko orokorrak direla eta ez datozela bat hemen aztertzen ari garen aldizkarien ezaugarri guztiekin. Banan-banan aztertuko ditugu, tokian tokiko euskal prentsari egokitzen direnekin hasiz:

– **Doakotasuna:** euskarazko aldizkari lokal gehienak dohainik banatzen dira etxez etxe. Horrela izanda, salmentak ez diren beste diru iturri batzuk dauzkate eta, gehienetan, dirulaguntzei eta publizitateari esker bizi dira.

– **Profesional gutxi idazgeletan:** arlo honi dagokionez aldizkari guztien artean alde handiak egon arren, oro har kazetarien lan baldintzak kaskarrak direla esan daiteke. Aldizkari batzuek kazetari profesionalak dituzte, langile finkoak alegia, eta beste batzuek borondate hutsez lan egiten duten pertsonak, edo gizarte-segurantzarik gabe nola edo hala kobratzen ari direnak.

– **Eduki anitzak:** euskarazko herri aldizkarien artean egon badaude gai konkretuetara mugatzen direnak, kirola, musika, kultura... jorratzen dutenak. Alabaina, tokian tokiko aldizkari gehienek informazio desberdinak eta mota guztietako gaiak eskaintzen dituzte.

– **Bertoko hizkuntzen erabilpena:** Bel Mallenek aipatzen duen moduan, garai askotan, hedabide mota hau bertoko hizkuntzen biziraupena suspertze-ko edo adoretzeko euskarria izan da. Gure kasuan ere, eremu urriko aldizkarietan euskararen presentzia nabarmena da.

– **Enpresa-egitura ahula:** herri aldizkariak gero eta komunikabide sendoago eta profesionalago bihurtzen ari dira, enpresa-egitura hartuz, goi-mailako teknologia erabiliz, langileria zabalago eta espezializatuagoekin eta asmoak bezain aurrekontu altuekin. Hala ere, oraindik enpresa-ikuspegia landu egin behar da, aldizkari asko eta asko dirulaguntzei esker bizi baitira, eta diru iturri hori urrituko balitz ere, autofinantzatzeko beste bideak lortu beharra dago.

– **Aurkezpen marketsa:** azken urteotan euskarazko aldizkariak diseinu atseginagoak bilatu nahi izan dituzte, merkatuan dauden beste agerkariekiko lehian aurrera atera ahal izateko. Ahalegin handia egin dute euren produktuak txukundu, kolorea sartu eta diseinu erakargarriak prestatzen; hitz batean: produktuak hobetzen.

– **Etenkako agerpen eta desagertpena:** aztertutako denboraldian herri aldizkarien ugaltzea nabaria izan da. Era berean, hainbat aldizkari desagertu egin dira, beste batzuk sortzen ziren bitartean. Nolanahi ere, aintzakotzat hartu behar dira nahiko bide finkoa egin duten astekari, hamabostekari eta hilabetekariak, denboran zehar euren kalitatea hobetzen joan direnak.

– **Politizazio handia:** Euskal Herriko prentsa lokalean eguneroko bizitza arruntak dituen gorabeherak kudeatu nahi dira. Arazo politikoak jasotzen dira, noski. Baina beste gai bezala, gizartearen egitura bera kuestionatu gabe, sistemaren aldaketa proposatu gabe. Osterantzean, aldizkari bat sendotua egon arren, erredakzioa aldatu eta joera politiko batekin identifikatzen hasiko balitz, galdu egingo luke sinesgarritasun guztia, eta baita erakundeen eta merkatarien laguntza ere. Horrenbestez, esan daiteke euskarazko herri aldizkariak independentzia politikoa mantentzen dutela.

– **Enpresa-gardentasun urria:** gure kasuan, enpresak baino herri aldizkariak ateratzen dituztenak kultur elkarteak dira; beraz, ezin da hitz egin enpresa-gardentasunari buruz. Elkarte horien egitura ondo definituta dagoela uste dut, baina egia da arlo horretan egin diren azterketak oso gutxi izan direla, beraz, estatistika edo datu falta dagoelakoan nago.

Asier Arangurenek, Euskal Herriko egoeran oinarriturik, honako irizpide hauek erabiltzen ditu prentsa lokala zer den adierazteko:

“A.- Herri mailako informazioa

Beste probintzi edo nazio aldizkarien aurrean prentsa lokalak, izenak berak dionez, herri bertako informazioa du aztergai eta iturri. (...) Batzuetan herria beharrean bailara da informazio gunea.

B.- Informazio orokorra

Ez dira aldizkari kultural edo entretenimendukoak. Hasi giza arazoetatik eta politika, kirolak, zerbitzuak... gai guztiak jorratzen dituzte.

D.- Zabalkunde Eremua: herritarrak

Herrian bertan banatzen da. Eta horrez gainera bertakoak izan baina kanpoan daudenei bidaltzen zaie aldizkaria.

E.- Hizkuntza

Euskadin, bizi dugun egoera soziolinguistikoan, hizkuntza bat edo beste aukeratzea ezinbestekoa da. Oinarritzko erabakia da. Prentsa lokalean euskaraz, gazteleraz eta frantsesez idazten da”.

Kontuak kontu, **hurbiltasuna** da tokian tokiko prentsaren ezaugarri nagusia, herri hedabideei erakarmena ematen diena, alegia. Multzo honetan sartzen diren agerkariek herritar gehiengoaren informazio-gosea ase dezakete, herriko ekintza eta arazoei buruz hitz eginez eta jendearengandik hurbil dauden gaiei buruzko informazioa eskainiz (ohiturak, tradizioak, gertaerak, elkar-teen bizitza, auzo-lanak, egoera sozioekonomikoa, balore literario eta kulturalak, etab.).

Era berean, azpimarratu behar da **egunkari handiekiko desberdintasuna**, aztertutako aldizkarien helburua publikoarengandik gertu dauden berrietara iristea baita. Herri aldizkari bat beste maila bateko prentsak betetzen ez

duen hutsunea betetzera dator. Egunkarietako kronika lokalak espazio laburra eskaintzen die herrietako informazioei eta inolaz ere ez dute asetzen herritarren informazio-egarria. Ondorioz, tokian tokiko prentsak, eta zehazki herri aldizkariak, eremu zabalagoko prentsak eskaintzen ez dituen hurreko berriak eskaini behar dituzte.

Horrenbestez, prentsa lokala zer den azaltzeko irizpide geografikoa ez da garrantzitsuena, egile batzuek adierazten duten bezala. Hau da, hedabide lokala ez da udalerrri jakin batean edo batzuetan argitaratzen dena. Irizpide hori jarraituz gero, ez dakigu ezer hedabidearen ezaugarriei buruz. Izan ere, askotan gertatzen da, adibidez, herri bateko telebistako programazioa Estatu Batuetatik heltzen zaiola satelitearen bidez. Telebista hau hedabide lokala izango litzateke herri batean hedatzen delako, baina ez dator bat herriaren ezaugarriekin eta, beraz, ezin dugu esan zabaltzen duen informazioa hurbilekoa denik. Ondorioz, nire ustez, telebista horri ezin zaio deitu herri telebista.

Beraz, esparru lokala definitzeko ezin dugu kontuan hartu eremu administratiboa bakarrik, baizik eta **esparru sozial eta kulturala** izan behar duela. Hurbileko esparrua da, eguneroko bizitzako esparrua da eta bertako kideek taldeko erreferentzia dute, tradizioen eta historiaren ondorioz bizitzaren aurrean erantzun bertsuak konpartitzen dituztelako. Horrek guztiak herriari berezko identitatea ematen dio, horregatik herri guztiak desberdinak dira, bakoitzak bere izaera propioa duelako.

Orduan, prentsa lokala definitzeko irizpidea gertaerak komunikatzeko modua izan behar du. Hau da, hedatzen diren mezueta herriaren berezotasunak jaso behar dira. Horixe da, beraz, hurbileko informazioa zer den adierazteko erabili behar den irizpidea: herriaren edo herri multzoaren **berezko ezaugarriak** izatea. Horrek ez du esan nahi kanpoko gertaerak ezin direnik jaso. Aitzitik, tokian tokiko agerkarietan gertakariak ikuspuntu lokaletik begiratu behar dira, nahiz eta esparru orokorrean gertatu, udalerrriak ez direlako entitate itxiak. Ondorioz, ez da lokala herrian gertatzen dena, baizik eta herrian bizi den jendeari interesatzen zaiona, herrian bertan edo kanpoan gertatzen dela.

2. IKERKETAREN METODOLOGIA

Laburki esanda, doktore tesian egindako ikerketa egiteko eduki-analisia- ren metodo kuantitatiboa erabili dut. Ikerlanaren unibertsoa honako hau da: 1989. urtetik 1999. urtera bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrrietan argitaratutako informazio orokorra zabaltzen duten euskarazko herri aldizkariak. Agerkari horietan sail guztietako eduki informatiboak aztertu ditut (albisteak, iritzi artikulua, txisteak...). Irudiei eta publizitateari eskaintzen zaien lekua ere zenbatu egin dut.

Ikerlan hau aurrera eramateko 1989 urtea hartu nuen abiapuntutzat. Izan ere, 1988. urtearen amaieran *Arrasate Press* astekaria jaio zen, euskarazko tokian tokiko prentsan oso ekarpen garrantzitsua izan dena, harrezke-

ro kaleratutako herri aldizkariarentzat ereduia izan delako. Horrez gain, urte hori Herri Administrazioetan euskararen erabilerarako hizkuntz normalkuntza-prozesua ezarri aurretik (1990) zegoen egoera erakusteko data adierazgarria dela uste nuen. Horrela, azken hamarkadan gertatutakoa kontuan hartuz, prentsa lokalaren ugalketaren fenomenoaren ikuspegi orokorra izan dezakegu.

Aldizkarien ez-probabilitatezko lagina aukeratu nuen eta horregatik ezin dugu esan laginaren emaitzak unibertso osoarenak direnik, baina era horretan euskarazko tokian tokiko prentsaren joerak adieraz daitezke. Aldizkari hauek hautatu nituen: Ondarroako *Arranondo*, Orioko *Karkara*, Aretxabaletako *Aretxagazeta*, Arrasateko *Arrasate Press*, Durangoko *Eraz*, Tolosako *Galtzaundi*, Getxoko *Bizarra Iepoan/UK*, Iruneko *Irunero* eta Zuiako Eskualdeko *Herrietan*. Azken hau elebiduna da, interesgarria iruditu zitzaidalako aztertea euskararen bilakaera aldizkari elebidunetan.

Aleen lagina egitea oso zaila zen, maiztasun desberdineko aldizkariak direlako eta data desberdinetan kaleratu direlako. Azkenean, ondorengo aleak aukeratu nituen: astekari, hamabostekari eta hilabetekari bakoitzak argitaratutako lehenengo lau zenbakiak eta urte bakoitzeko lehenengo lau zenbakiak, 1999. urtera arte. Maiztasun handiagoko aldizkarien kasuan, urte bakoitzeko lehenengo bi zenbakiak hartu nituen.

Bestalde, aldizkarien ordezkariari 23 galderaz osatutako galdetegia egin nien, aldizkari bakoitzari buruzko hainbat datu lortzeko. Galdera horiek aldizkarietako eduki analisia egin eta gero burutu nituen, azterketan ateratako emaitzak hedabideen arduradunek esaten zidatenarekin erkatzeko asmoz.

Datuak biltzeko eta aldizkarien arteko konparaketa egiteko, honako **kategoria-sistema** hauek erabili nituen: sekzioak, kazetaria, informazioen esparru nagusia, denbora-unea, informazio-iturriak, kazetaritza-generoak, gaiak, zerbitzu-informazioa, hizkuntza, idazkera, kontalariaren ikuspuntua, irudiaren erabileria, diseinua eta publizitatea.

3. ONDORIOAK

3.1. Igorlea

ALDIZKARIEN FUNTZIOAK

– Aztertutako denboraldian (1989-1999) bi garai ikus daitezke. Hasierako sei edo zazpi urteetan euskarazko herri aldizkari gehienak jaio ziren, batez ere herrialde mailako prentsak eskaintzen ez zuena hedatzeko asmoz. Aldizkari batzuk moda edo joerari jarraitzeko sortu ziren eta horregatik lantalde gehienen ardurak bakarrik aldizkaria garaiz egin eta banatzea zen. Hazkunde kuantitatiboa izan zela esan daiteke. Aldizkarien funtzio nagusiak honako hauek ziren: euskararen normalkuntzan lagungarri izatea eta herriko informazioa eskaintzea.

– 1995. urtetik aurrera, gutxi gorabehera (kasu batzuetan lehenago eta beste batzuetan beranduago), tokian tokiko agerkarien hazkunde kualitatiboa gertatu izan da. Izan ere, aldizkariak kalitatea hobetzeko ahalegin bereziak egin dituzte: diseinua erakargarriagoa egin dute, edukiak aniztu, idazkera gehiago zaindu, herritarren partaidetza sustatu, euskarazko publizitatea bultzatu, beraien arteko harremanak indartu dituzte... Hori dela eta, denbora pasa ahala euskaraz izatea bigarren mailara igaro da eta aldizkariak beste funtzio batzuk hartu dituzte euren gain: herritarren arteko harremanak bultzatzea, iritzi desberdinen bilgunea izatea, jendearen interesetatik gertu dauden edukiak hedatzea, kultura bultzatzea, informazio erabilgarria eskaintzea, beste hedabideetako informazio-iturria izatea, euskarazko publizitatea suspertzea.

– Euskarazko herri aldizkariak euren lekua aurkitu dute hedabideen merkatuan. Kasu batzuetan beren esparruan hurbileko informazioa hedatzen duten komunikabide bakarrak dira, zuzeneko lehiakiderik izan gabe. Orduan, hedabide handiagoek uzten dituzten hutsuneak eta akatsak betetzen saiatzen dira, herriko informazioa euskaraz jasotzeko aukera emanez. Beste udal-erri batzuetan badaude gertuko edukiak eskaintzen dituzten beste hedabide batzuk, gaztelaniaz idatziak edota kolektibo batzuen interesak jorratzen ez dituztenak. Kasu horietan produktua hobetu definitu behar izan dute eta aldizkaria beste ikuspuntu batetik egin (kulturari buruzko gaiak indartuz, adibidez).

– Herri aldizkariak euskararen erabilerarako hizkuntza normalkuntza-prozesuan lagundu egin dute, euren esparruan euskara ohiko hizkuntza bihurtu dutelako. Izan ere, agerkari hauen orrialdeetan euskara normaltasun osoz erabiltzen da herritarren artean mota guztietako gaiak zein kazetaritza-generoak zabaltzeko (eta ez bakarrik gai arinak edo genero errazak), gure hizkuntza oso aberatsa dela erakutsiz.

TEKNOLOGIA BERRIAK

– Euskarazko herri aldizkarien artean teknologia berriak eskuratzeko orduan desberdintasunak egon diren arren, gaur egun gehienetan aldizkaria egiteko prozesua ordenagailuaren bidez egiten da, autoedizioa erabiliz. Beraz, arlo honetan ez dira atzean geratu herri agerkariak.

– Internet sareak, funtzio eta eduki lokalak zalantzan jarri barik, abantaila garrantzitsuak ekarri ahal dizkio tokian tokiko komunikazioari. Posta elektronikoaren bidez herri aldizkarien artean informazioa truka dezakete, bai eta berriak kanpotik jaso ere. Web orrialdeei esker, hurbileko informazioa oso prezio merkean beste esparru berrietara zabaltzeko aukera daukate eta paperezko edizioetan ezin diren egin beste aukera batzuk ere agertzen dira, hala nola, informazio digitalizatua jendearen esku uztea; datutegi komertzialak edo profesionalak zerbitzu publiko gisa eskaintzea; edo herriaren web ez-ofiziala egitea.

– Interneten bidez hedatzen diren euskarazko herri aldizkariak idatzizko bertsioen menpe agertzen dira. Hau da, paperean argitaratzen diren aleen moldaketa baino ez da ezartzen, eta ez dugu aurkituko Interneterako beren beregi egindako edukirik. Hartara, bilaketa-sistemak ez dira erabiltzen eta horrek oso elkarreragin baxua dakar bere baitan, posta elektronikoen bidez hedabidearekin komunikatzeko aukera besterik ez izanik, baina inoiz ez kazetariarekin. Beraz, agerkari horiek ez dituzte idatzizko bertsioek baino abantaila handiagorik, jende gehiagoren eskura daudela ez bada. Horrez gain, hedabide hauek dituzten webguneetan multimedia ez dela jorratzen esan daiteke, ikus-entzunezko elementurik erabili gabe (ez dute ez soinurik ez irudi mugikorrik) testuan oinarritzen baitira.

– Aldizkari gehienak, Interneten dauden beste hainbat argitalpen bezalaxe, sarean helburu zehatzik gabe agertzen direla esan daiteke. Argi dago hedabide askok jotzen dutela sare telematikora beste komunikabide batzuk lehendik sartuta daudelako, eta ez sartzeak ekarri ahal dizkien abantailak ikusten dituztelako. Badirudi inertziak hedabideak bultzatzen dituela sarean sartzera bertan beste batzuk badaudelako, bestelako xederik bilatu barik.

– Orain dela gutxi arte, euskarazko herri aldizkarien edizio elektronikoak teknologia berrien aurrean nahiko beldurtiak izan dira, oraintxe aipatu dudanez. Dena den, hirugarren milurtekoaren lehenengo urteetan egoera hau aldatzen hasi da. Herri aldizkari batzuek Interneten eskaintzen duten informazioa ez dute jadanik era tradizionalen ematen, baizik eta harantzago joan direla eta euren edukiak aprobetxatuz sarean produktu erabilgarriagoak eskaintzen dituzte (datu-baseak, bilaketa sistemak, Interneterako egindako produktuak...), hipertestua oinarritzat hartuz. Gaur egun atari dinamikoak aurki daitezke eta bertan edukiak etengabe eguneratzen dira, zerbitzu erabilgarriak eskaintzen dira eta erabiltzaileek parte har dezakete.

ADMINISTRAZIOAREKIKO LOTURA

– Euskarazko herri aldizkariak irabazi asmorik gabe sortu dira eta herri-ekimenez bultzatu dituzte. Finantzazioa partekatua da, publizitatea eta beste sarrera propioak alde batetik, eta dirulaguntza publikoak bestetik. Gaur egun aldizkariak autofinantzatzea ezinezkoa da eta erakunde publikoen dirulaguntzak beharrezkoak dira.

– Euskararen Normalkuntzarako Legeak euskarazko herri aldizkarien ugalketan eragina izan duela esan daiteke. Izan ere, legea dela eta erakunde publikoek emandako dirulaguntzak finkatzen joan dira aztertutako hamarkadaren lehenengo urteetan. Aldizkari lokal askok dirulaguntza horiek aprobetxatu zituzten kaleratzeko.

– Urteak pasa ahala, aldizkarietan autofinantzaketa maila igotzeko ahalginak egin dituzte, batez ere publizitateari garrantzi handiagoa emanez eta harpidetzaren sistema erabiliz, hau da, aldizkaria etxean jasotzearen ordaintan urtero diru saria ematea. Izan ere, herri agerkariek dirulaguntzen menpe ahalik eta gutxien egon nahi dute.

3.2. Edukia

ATALAK

– Herri zein eskualde aldizkarietan, edukiak gaiaren arabera banatzen dira. *Herrietan* aldizkarian izan ezik, atalak esparru geografikoaren arabera banatzen direlako.

– Atal gehienak finkoak dira bai edukiari bai kokapenari dagokionez ere, horregatik irakurleek badakite non aurkitu interesatzen zaiena. *Galtzaundi* eta *Arranondo*-n, ordea, sailak asko aldatzen dira ale batetik bestera.

– Hauexek dira gehien errepikatzen diren atalak: Irakurleen gutunak, Inkesta, Iritzia, Albiste laburrak, Erreportaia(k), Elkarrizketa(k), Kultura, Kirola, Kontu zaharrak, Agenda eta Lehiaketa.

– Orrialde kopurua oso desberdina da aldizkari batetik bestera. Orrialde gutxien dutenak *Arranondo* eta *Eraz* dira (20) eta gehien duena *Galtzaundi* da (44).

SINADURA

– Aldizkari gehienetan testuen erdia baino gehiago sinadurarik gabe agertzen da. Are gehiago, *Aretxagazeta*-n kazetariak ez dute testu bat bera ere sinatzen eta *Eraz* eta *Arrasate Press*-en oso artikulua gutxi sinatzen dituzte. Testu gehien sinatzen dutenak *Bizarra Lepoan/UK* dira (%60).

– Denbora igaro arau, kolaboratzaileek sinatutako idazki kopurua ugaria goa da aldizkariaren gehiengoan (*Arranondo*, *Irunero* eta *Arrasate Press*-en izan ezik). Ondorioz, irakurleek idatzitako testuei gero eta espazio handiagoa eskaintzen diete.

– Sinatuta ez dauden testuen artean tokirik handiena informazioak betetzen du aldizkari guztietan.

– Kolaboratzaileek sinatzen dituzten testu gehienak iritzizkoak dira.

ESPARRUA

– Logikoa denez, aldizkari guztietan informazio lokala nagusi da. Tokian tokiko esparruan, aldizkariaren egoitza dagoen udalerrria da albiste gehien sortzen dituenak, *Eraz*-en kasuan izan ezik.

– *Galtzaundi*, *Arranondo*, *Aretxagazeta* eta *Karkara* aldizkarietan, urtetik urtera esparru ez-lokalean kokatutako testu kopurua altuagoa da. Aitzitik, *Bizarra Lepoan/UK*, *Irunero*, *Herrietan* eta *Arrasate Press*-en albiste lokalen pisua gero eta handiagoa da. *Eraz*-en testu lokalen ehuneko mantendu egi-ten da denboraldi osoan, gorabehera batzuekin. Testu ez-lokal gehienek kultura hartzen dute gai nagusizat eta Euskal Herri mailan kokatzen dira.

– Aztertutako urteetan gero eta gehiago dira esparru konkretu batera mugatzen ez diren interes orokorreko testuak (*Irunero*, *Herrietan* eta *Arrasate Press*-en izan ezik). Gehienetan idazki horiek kultura edo gizarte gaiak jorratzen dituzte.

– Herri hedabide batzuetan kontrakoa uste badute ere, ona da herri edo bailarako esparrua gainditzten duten informazioak eskaintzea, baldin eta irakurleari interesatzen bazaizkio. Hurreko agerkarietan gertakariak ikuspuntu lokaletik begiratu behar dira, nahiz eta esparru orokorrean gertatu: lehen aipatu dudan moduan, ez da lokala soilik herrian gertatzen dena, baizik eta herrian bizi den jendeari interesatzen zaiona.

DENBORA

– Aldizkarietan gaurkotasanari loturiko albisteak argitaratzen dira batez ere. Salbuespen bat dago: *Bizarra Lepoan* eta *UK* aldizkarietan testu gehienak denboraz kanpokoak dira, hau da, ez dauka garrantzirik zein momentutan jazo diren gertakariak.

– Denboraz kanpoko albisteek espazio nabarmena betetzen dute aldizkari guztietan. Normalean, testu horiek elkarrizketak dira eta gizarte gaiak jorratzen dituzte.

– Iraganeko testuek ere badute euren lekua, *Arrasate Press*-eko %2,8 eta *Arranondo*-ko %11,5 bitartean. Hala ere, hasierako urteetan garrantzi handiago zuten gaur egun baino. Gehienbat atzera begirako artikulak dira eta gizarte gaiak jorratzen dituzte. *Herrietan* aldizkarian ez da agertzen iraganeko albisterik.

ITURRIAK

– Oso altua da iturriak zehazten ez dituzten testuen kopurua. Hala ere, hau kazetari-ohitura besterik ez da eta gauza bera gertatzen da mota guztietako hedabideetan, garrantzitsuena zer gertatzen den jakitea dela uste dutelako eta ez nork esaten duen.

– Gehien erabiltzen diren informazio-iturriak ez-instituzionalak dira. Horrek esan nahi du aldizkariak batez ere herritargoa erabiltzen dutela informazioa jasotzeko. Ondorioz, aldizkaria eta herritarren arteko komunikazioa sortzen da eta irakurleak ez dira kontsumitzaile hutsak, baizik eta aldizkarietan parte hartzen dutela. *Arranondo* eta *Herrietan*-en, aitzitik, iturri instituzionalak dira erabilienak.

– Gehiagotan erabilitako iturria norbanakoa da, beraz, herritarrek aldizkariaren edukian parte hartzen dutela esan daiteke. Bere atzetik, iturri hauek dira erabilienak, ordena honetan: herriko elkarteak, udala, ikastetxeak, enpresak, liburuak eta alderdi politikoak. Iturri-aniztasuna dago.

– Informazio-iturri bezala udala garrantzitsua da, iturri instituzionalen barruan gehien erabiltzen dena baita. Hala ere, horrek ez du esan nahi herri aldizkariak udalen menpe daudenik, ezta hurrik eman ere. Izan ere, esparru lokaleko informazioan udala informazio-iturri oparoenetakoa da, udal-informazioaren presentzia gero eta nabariagoa baita hedabide guztietan. Udala iturri bezala batez ere informazio hutsezko testuetan erabiltzen da.

– Herri aldizkariak ez dute erabiltzen Internet informazio-iturri modura (edo behintzat ez dute aipatzen). *Bizarra Lepoan/UK* dira saretik aterako informazioak argitaratzen dituzten bakarrak.

GENEROAK

– Aldizkari informatiboak dira batez ere. Hala ere, informazioaren barruan ez dituzte albisteak soilik hedatzen, baizik eta gertakarien interpretazioa ere eskaintzen dutela. Erreportaiak eta herriko pertsonen buruzko elkarriketak ugari dira eta, ondorioz, edukia aberatsagoa da eta jendearengandik hurbilago dago.

– Iritziko testu kopuruari dagokionez, desberdintasun handia dago aldizkari batzuetatik besteetara. Iritzi gutxien eskaintzen dutenak *Herrietan* (%3,5), *Eraz* (%11,6) eta *Galtzaundi* (%12,2) dira eta gehien eskaintzen dutenak *Bizarra Lepoan/UK* (%43), *Karkara* (%30,1) eta *Arranondo* (%24,9).

– Herri aldizkariak ez dira kazetaritza-genero arin eta errazetan gelditzen, baizik eta genero serioak ere lantzen dituztela: iritziak, erreportaia handiak, saiakerak...

– Aldizkari gehienetan (*Bizarra Lepoan/UK*, *Irunero*, *Aretxagazeta*, *Arrasate Press* eta *Karkara*) herritarrek zuzenean eta aktiboki hartzen dute parte, bi generoren bitartez: gutunak eta inkesta. *Galtzaundi*-n, *Arranondo*-n, *Herrietan*-en eta *Eraz*-en, berriz, genero horien pisua oso eskasa da. Irakurleen gutunak gai guztiak aipatzen dituzte, baina batez ere politika, gizarte gaiak eta euskara, ordena honetan. Inkestei dagokienez, gehienak gizarteari buruzkoak dira.

– Literaturak ez dauka pisu handirik. *Arranondo*, *Bizarra Lepoan/UK* eta *Karkara* aldizkarietan besteetan baino ugariagoa da (%7,7, %4,1 eta %5,2, hurrenez hurren).

– Aldizkari gehienetan komikia argitaratzen da.

GAIK

– Mota guztietako gaiak agertzen dira, beraz aldizkariak arlo honetan oreka gordetzen dutela esan dezakegu eta horregatik interes desberdinak dituzten herritarrek gustuko edukiak aurki ditzakete. Dena dela, gizarte gaiak lehentasuna dute agerkari gehienetan. *Bizarra Lepoan/UK*-n eta *Irunero*-n,

ordea, kulturari buruzko gaiak nagusi dira. *Galtzaundi*-n kultura eta gizarteari buruzko testuak nahiko parekatuta daude.

– Gai zehatzei dagokienez, aldizkarien edukiek gero eta aniztasun handiagoa dute. Honako hauek dira gehien errepikatzen direnak: herritarren bizi-tza, euskara, musika, herriko taldeak, literatura/liburuak, futbola, herrilanak, hezkuntza, ekologia, herri hedabideak, Euskal Herriko gatazka eta pilota.

– Udalaren gaia ez da oso garrantzitsua aldizkarietan eta gehienetan testu informatiboetan jorratzen da, batez ere albiste modura. Aldizkarietan udalaren eragina ez dela igartzten esan daiteke, udalaren aurrean euren independentzia mantentzen delarik.

ZERBITZU-INFORMAZIOA

– Zerbitzu-informazioaren eskaintza handitu bada ere, oraindik ez du leku handirik betetzen aldizkarien orrialdeetan eta, agertzen denean, gehienetan agendako zerbitzua izaten da, hau da, egunkari gehienetan eskaintzen den ohiko zerbitzua. Arlo honetan herri aldizkariak kazetaritzako ohiko eskemak jarraitzen dituzte eta ez dituzte irakurlearentzat erabilgarriak diren datu asko eskaintzen. Horrenbestez, prentsa lokala zerbitzu-informazioa hedatzeko bitartekorik proposena bada ere, euskarazko herri aldizkariak ez dute aukera hori ondo aprobetxatzen. Hauxe da agerkari horiek edukien arloan duten akatsik handiena, herri prentsan herritarrei informazio erabilgarria eskaini behar zaielako.

– *Arranondo* da zerbitzu-informazio gutxien eskaintzen duena (%6,7) eta *Arrasate Press*, aitzitik, gehien eskaintzen duena (%26,8).

– Zerbitzu-informazioa hedatzen duten idazki gehienak kulturari buruzkoak eta informazio-testuak dira.

HIZKUNTZA

– Euskara batua nagusi da aldizkari guztietan, *Arranondo*-n izan ezik, aldizkari honek batez ere euskalkia erabiltzen duelako testuak idazteko.

– Urteak pasa ahala euskara batuaren erabilera areagotu egin da aldizkari guztietan, euskalkiak gutxiagotan erabiliz.

– Euskalkiak batez ere euskara batua urrun samar duten eskualdeetan erabiltzen dira, eta gehienbat pertsona batek esandako hitzak idazten direnean, batez ere elkarrizketetan, iritzi artikuluetan eta bertsoetan. Idazki horiek gai guztiak jorratzen dituzte, gizarte gaiak nagusitzen diren arren.

– Euskararen kalitatea gero eta hobea da. Aldizkari gehienetan arlo hau zaintzeko ahaleginak egin dituzte: kazetariak trebakuntza jasotzen dute edota testuak zuzentzeko zuzentzaileak hartzen dituzte.

– Aztertutako aldizkari elebidun bakarraren datuek ondorio hau dakarte: hizkuntza bat edo beste aukeratzearen arrazoa ez da genero edo gai mota, baizik eta esparru geografikoa: udalerrri euskaldunagoi buruz hitz egiten denean euskara maizago erabiltzen da. Bestalde, *Herrietan*-en denbora pasa arau testu elebidunak gutxiago dira eta gehiago euskaraz edo gaztelaniaz idatzitakoak, batez ere azken hauek. Honek egiaztatzen du aldizkari elebidunak ez direla oso lagungarriak euskararen normalkuntzarako.

IDAZKERA

– Aldizkariak idazkera zaintzen dutela esan daiteke. Testu gehien-gehienak arinak dira irakurtzeko, hau da, esaldi motzak erabiltzen dira, jende guztiak ulertzeko modukoak. Gainera, denborak aurrera egin ahala arlo hau hobeto zaintzen dute.

– Oro har, irakurketa errazteko ahaleginak egiten dira. Izan ere, urteak iragan ahala gehiago dira testuetan erabiltzen diren baliabideak (tituluak, sarrerak, tartekiak...) eta elementu horiek irakurketa errazten dute.

– Normalean testu motzak argitaratzen dira eta luzeagoak direnean irakurketa errazteko baliabideak erabiltzen dira. Laburbilduz, herri aldizkarien estiloa arina, zuzena eta hurbila dela esan dezakegu.

IKUSPUNTUA

– Gertakariak kontatzeko orduan, gehienbat hirugarren pertsona erabiltzen da, hau da, gertakizuna eta datuak nagusi dira eta objektibotasunari lehentasuna ematen zaio.

– Hala ere, lehen pertsona gero eta gehiago erabiltzen da testuetan, beraz, informazioen igorleak partehartze handiagoa du. Horrek esan nahi du aldizkariak informazioa hedatu baino gehiago egiten dutela, gertakarien kontaktetan inplikatzeko direlako eta, ondorioz, irakurlearengana hurbiltzen dira.

IRUDIAK ETA PUBLIZITATEA

– *Bizarra Lepoan/UK* dira irudiei espaziorik handiena eskaintzen dietena (%29,3) eta *Arrasate Press* irudi gutxien daukana (%17,2). Gehienetan, argazkiek betetzen duten tarte handiagoa da urteak pasa arau.

– Irudien kalitatea ere hobetu da nabarmen, eta gaur egun kasu gehienetan irudiak testuak bezain zainduta daudela esan daiteke. Irudi gehien-gehienak argazkiak dira eta infografikoak, ordea, oso gutxitan erabiltzen dira.

– Hasiera-hasieratik publizitatearen aldeko apustua egiten da aldizkari gehienetan. Hala ere, hastapenean euskarazko publizitatea produktu bezala

saltzean ohitura falta igartzen zen. Oro har, publizitateak betetzen duen espazioa handiagoa da urteek aurrera egin duten heinean. Dena den, hazkunde kuantitatiboa baino aldizkari batzuetan hazkunde kualitatiboa askoz garrantzitsua da, iragarkiak hobetzeko ahalegin berezia egin baita.

4. 1999-2001 URTEETAN GERTATUTAKO ALDAKETAK

Tesi honetan egindako ikerlana denboraldi zehatz batera mugatzen da: 1989. urtetik 1999. urtera arte. Horregatik, lan honetan agertzen diren datuak urte horien barnean kokatzen dira. Hala ere, hurrengo bi urteetan aldaketa garrantzitsuak gertatu dira euskarazko herri agerkarien arloan eta **aro berri baten atarian** daudela esan dezakegu. Hori dela eta, ezinbesteko iruditu zait azken urteotan gertatutakoaren berri ematea, nahiz eta modu laburrean izan.

4.1. Aldizkari berriak eta maiztasun handiagoak

Azken urteetan euskarazko aldizkari berri batzuk agertu dira, besteak beste *Danbolin* hilabetekaria Zestoan, *Kronika* egunkaria Hernanin, *Arkalaz* hilabetekaria Amorebieta-Etxanon, *Prest* hilabetekaria Deustualdean, *Txaparro* hamabostekaria Zarautzen, *Tolosaldean Egunero* egunkaria Tolosaldean eta *Aikor!* hilabetekaria Txorierrin (Zamudio, Lezama eta Larrabetzu).

Bestalde, aurretik kaleratzen ziren beste aldizkari batzuk lehen baino maizago argitaratzen dira orain. Tolosaldeko *Galtzaundi* eta Orio eta Aiako *Karkara* aldizkariak hilabetekari izatetik hamabostekari izatera pasatu dira. Lasarte-Oriako *Txintxarri* hamabostekaria, berriz, astekari bihurtu da.

4.2. Eskualdeko hedabideak bultzatuz

GOIENA: LEHEN KOMUNIKAZIO-KOOPERATIBA

2000ko ekainean Euskal Herriko lehen komunikazio-kooperatiba agertu zen: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarte. Debagoieneko zortzi herrietako (Arrasate, Eskoriatza, Elgeta, Leintz Gatzaga, Antzuola, Bergara, Oñati eta Aretxabaletako) eta Aramaioko euskara elkarteek sortu zuten.

Goienak bere gain hartu du euskara elkarteen esku zeuden herri hedabideen ardura: *Arrasate Press*, *Ze barri?*, *Goibekokale*, *Kontuola*, *Berrigara*, *Aretxagazeta* eta *Txirritola* (ez, ordea, Oñatiko *Kontzejupetik*). Bailarako eta Aramaioko euskara elkarteak izan dira bazkide sortzaileak, baina udalak (Bergara, Oñati eta Elgetakoa izan ezik), inguruko enpresak eta baita langileak ere bazkide laguntzaile dira.

2000ko abenduaren 1ean *Goienkaria* astekaria jaio zen. Bertan, tokian tokiko berriez gain, bailarakoak ere jasotzen dira. Bere formatua berria da

euskarazko prentsa lokalaren arloan, DIN A4-koa izan beharrean DIN A3 edo egunkari formatukoa delako eta prentsa paperean egiten delako. Bestalde, tokian tokiko aldizkarien artean tiradarik handiena duena da: 20.000 ale. Hasierako hilabeteetan herri aldizkariak ohiko maiztasunarekin kaleratzen ziren, baina 2001eko urrian aldizkari guztiak *Goienkaria*-n bildu ziren, hiru ediziotan, eta astero argitaratzen hasi ziren. Horretarako, aldizkariak ere itxuraldatu zituzten eta prentsa formatua eman zieten. *Goienkaria*-ren azken helburua egunkari bihurtzea da.

ERAZ ASTEKARIAREN ALDAKETAK

Orain dela gutxi arte Durangaldeko euskara hutsezko astekari bakarra izan den *Eraz*-en lekua 2001eko azaroaren 9tik aurrera *Anboto* astekari berriak hartu zuen. Bere helburu nagusiak bi ziren: Durangaldeko 11 herrietara heltzea eta harpidedun kopurua 10.000 lagunekoa izatea. Horretarako, astekariaren formatua aldatu zuten, egunkari formatua hartuz, eta tirada bizi-ki igo zen, *Eraz*-en 3.000 aletik *Anbotoren* 16.000ra.

Prentsa formatua hartzearen arrazoa, *Goienkaria*-ren kasuan bezalaxe, honako hau izan zen: inprentako gastuak txikiagoak izanik, ale gehiago atera daitezke eta, gainera, horrela leku gehiago dago herri guztietako informazioa lantzeko.

TOLOSALDEAN EGUNERO: HERRI EGUNKARIA

2001eko abenduaren 18an Galtzaundi euskara taldeak eta *Euskaldunon Egunkaria*-k *Tolosaldean Egunero* egunkaria kaleratu zuten. Handik aurrera, Tolosaldeko 28 herrietako bizilagunek beren etxeetako postontzietan jasotzen dute egunero (astelehenetan izan ezik) eta doan zortzi orrialdetako agerkaria.

Era berean, Galtzaundik eta Egunkariak Tolosaldeko Komunikabideak enpresa sortu zuten, multimedia izateko bokazioa zuena. Izan ere, gaur egun informazioaren euskarriak papera eta Internet izan arren, telebista eta irrati-gintza ere enpresaren helburuak dira.

4.3. Etorkizunerako bidea

Agerian geratu da herri aldizkariak arrakasta nabarmena izan dutela 90eko hamarkadan, izugarritzko hedapena eta jarraipena lortu baitute hurbileko esparruan. Hala eta guztiz ere, aro berri honetan **orain arte lortutakoa babestu** behar dute indarra ez galtzeko, erdarazko enpresa handiak hasi direlako tokian tokiko informazioaren esparruan sartzen.

Goienak eta *Tolosaldean Egunero*-k eman duten urratsa etorkizunean tokian tokiko hedabideek eman beharreko pausua da, informazio lokalaren

esparruan sartzen ari diren interes ugariari aurre egin ahal izateko. Aldizkariak **eskualdeka** antolatu eta landu behar dira, euren egiturak sendotuz biztanle eta merkatu kopuru handiagori egokiago erantzuteko, gaztelaniazko hedabideei aurrea hartuz.

Herri hedabideak **eskualdeetako enpresa multimedia modernoetan bildu** behar dira eta hurreko komunikazioaren esparru guztiak profesionaltasunez landu, elkarrekin lan egitearen ondorioz sortzen diren sinergiak aprobetxatzeko.

Zalantza bakarra sortzen zait: egokia izango al da tokian tokiko egunkariak sortzea? Kontua ez da adina informazio sortuko den ala ez. Nire ustez, agerkari lokalak egokiagoak dira gehienez astean behin ateratzeko. Zergatik? Tokian tokiko informazioa ez delako goizetik ezagutu behar den informazio beroa, ez dago hain lotuta egunero gertatzen denarekin. Euskal Herrian eguneroko informazioaren esparrua ondo jorratuta dago dagoeneko eta herri aldizkariak egunkari orokorretatik bereiztu behar dira, euren funtzioa gertutasunean oinarritutako harreman soziala mantentzea delako. Edukiak, beraz, asteburuetan lasaiago irakurtzeko idatzi behar dira, irakurleek informatzeko, entretenitzeko edo hausnartzeko aukera izan dezaten.